

## GOBERNU BATZARRA

2017 07 26

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko uztailearen hogeita seian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	2.- Hiribus zerbitzua emateko kontratua berritzeko proposamena.
<b>Beh. Beh. Idazkaria:</b>	
<b>Angel Uranga Txurruka</b>	3.-“Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua”n jasotako obren 6. ziurtagiria (FV17/0013 eta FV17/0014 faktura).
<b>Kontuhartzaitza:</b>	
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	4.-“Haurren hirien sarean” atxikimendu instituzionala.
	5.-Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako 10/2017 zka.duen faktura zerrenda.
	6.- Zenbait kale eta eremu asfaltatzeko obrak kontratatzeke baldintza pleguak onartzea.
	7.-42-43/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko uztailearen 17an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

**2.- Hiribus zerbitzua emateko kontratua berritzeko proposamena.**

Gaia mahai gainean utzi da.

**3.-“Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua”n jasotako obren 6. ziurtagiria (FV17/0013 eta FV17/0014 faktura).**

“Berazubiko biribilgunea ta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua”n jasotako obren kontratua, 370.121,96€ (BEZ barne) izan zelarrik esleipenaren zenbatekoa.

Hauexek dira orain arte ordaindu diren ziurtagiriak:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
1. ziurtagiria(% 21ko BEZa)	FV 17/0002.....	29.491,80€
1. ziurtagiria (BEZik gabe)	FV 17/0004.....	15.921,30€
2. ziurtagiria(%21ko BEZa)	FV 17/0005.....	55.236,90€
2. ziurtagiria (BEZik gabe)	FV 17/0006 .....	2.378,04€
3. ziurtagiria (%21ko (BEZa).....	FV 17/0007.....	55.410,73€
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV17/0008 .....	6.836,18€
4. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	FV17/0009.....	46.273,95€
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV17/0010.....	12.229,08€
5. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	FV17/0011.....	31.244,44€
5. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV17/0012.....	8.031,17€
<b>GUZTIRA.....</b>		<b>263.053,59€</b>

Orain, honako ziurtagiri hau aurkeztu dute:

Ziurtagiri zenbakia.....	Faktura zenbakia.....	Zenbatekoa
6. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	FV17/0013.....	90.767,65€
6. ziurtagiria (BEZik gabe).....	FV17/0014.....	1.162,12€
<b>GUZTIRA.....</b>		<b>91.929,77€</b>

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Onartzea “Berazubiko biribilgunea eta suhiltzaileen artean irisgarritasuna hobetzeko proiektua”n jasotako obren 6. ziurtagiria, **91.929,77 €**-koa.

**BIGARRENA.**- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honi dagozkion **1.162,12€**-tako ordainketa eskatzea Gipuzkoa Urak enpresari.

**HIRUGARRENA.**- Fakturen ordainketa egitea.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Berazubi UTE-ri, Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartzaitzari.

#### **4.- “Haurren hirien sarean” atxikimendu instituzionala.**

Haurren hirien sarea Herrilaborategiaren inizatiba bat da. Europako batzarrak, Bilbon egindako “Guide to social innovation” bileran aurkeztutako 4 proiektuetatik aukeratutako bat izan zen, Leioako udaletxeak aspalditik Solasgunekin elkarlanean martxan zebilkien haurren kontseiluaren egitasmoa.

Topaketa haien ostean, eragile pribatu eta publikoez osatutako partzuergoak: Innobasque, Solasgune, EHU-UPV, BF-DFB, EJ-GV eta CNRRoma, Innobasqueren koordinaziopean EAEko udalerrri estrategiko ezberdinei, Tolosa tarteko, saretzearen beharra eta Haurren

Hirien sarean parte hartzeko proiektua aurkeztu zieten.

2016ko otsailean hasi ginen EAEko 12 udalerrri ezberdinak, Francesco Tonucci pedagogo italiarraren ideia eta ezagutzak izpide hartuta, esperientziak eta ezagutzak partekatze asmoz, hileroko bilerak eginaz.

Francesco Tonucci pedagogo italiarra izan da, nazioarteko mailan, “Haurren Hiria” egitasmoaren sortzaile eta bultzatzaile nagusia. Bere ustetan “Haurren hiria” proiektu politikoa, estrategikoa behar du izan, hiria eraldatzeko proiektua, haurraren begietatik abiatuta eta haurraren iritzia kontutan hartuta, aldi berean etorkizuneko herritartasun aktiboa sustatu asmoz.

Momentu honetan 12 udalerrri gaude Innobasquerekin elkarlanean, esperientziak partekatuz, horietatik 6 atxikitu dira formalki Haurren hirien sareari pleno bidezko naiz dekretu bidezko akordioekin.

Hiriaren eraldaketa emateko, haurren begietatik, 2 ekintza konkretu planteatzen dira eta bide batez bi hauek sarearen atxikimenduarekin betetzeko konpromisoa hartzen da:

1.- Haurren kontseilu bat sortzea udalerrian.

2.- Haurren autonomia hirian sustatzeko ekintza ezberdinak martxan jartzea, besteak beste eskolara oinez egitasmoa.

Haurren hirien sarean parte hartzeak Tolosako Udalari ondorengo onurak ekarriko lizkioke:

- Tutoretza eta laguntza zerbitzuak jasotzea eta proiektuen bideratzea eta egokitzapena.

- Atxikitutako pertsona tekniko eta politikoeekin topaketak.

- Esperientzien parte hartzea eta difusioa urteroko jardunaldietan.

- Formazioa

Tolosako udalak aldi berean ondorengo konpromezuak hartzen ditu:

1. Sarearen koodinazioan eta topaketa teknikoetan parte hartu.

2. Atxikitutako beste udalerriekin ezagutza eta esperientziak partekatzea

3. Haurren hirian barneko ekintzaren bat garatzea: umeen kontseilua, eskolara lagunekin edo beste bat.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, espedientean agertzen diren txosten teknikoak ikusita eta Kultura Batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Tolosako Udalaren izenean Alkateak UMHERRI – Haurren Hiria Sareko atxikimendu gutuna sinatzea.

**BIGARRENA.**- Proiektuaren arduradun Nerea Cereceda Gazteria Teknikaria izendatzea.

### **5.- lurreamendi Egoitzak aurkeztutako 10/2017 zka.duen faktura zerrenda.**

lurreamendi egoitzak **10/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du,. **4.695,99** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Iurreamendi Egoitzak aurkeztutako **10/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Iurreamendi Egoitzari.

**6.- Zenbait kale eta eremu asfaltatzeko obrak kontratazeko baldintza pleguak onartzea.**

Batzordekideei azaldu zaie goian aipatutako baldintza pleguak. Hirigintza, Obra, eta Zerbitzuko zuzendariak eta Kontuhartzaileak egindako txostenak kontutan izanda, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Bi mila hamazazpiko hainbat asfaltatu lanak kontratazeko klausula administratibo partikularren baldintza agiria, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratazio espedientea onartzea.

**BIGARRENA**.- Baldintza Pleguak onartzea.

**HIRUGARRENA**.- Prozedura irekitzea eta dagokion gonbidapenak egitea.

**7.- 42-43/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzarak **42/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **589,82** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- **42/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzailtzak **43/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **148.728,10** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- **43/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia eztabaidatzea erabakitzen da aho batez:**

**San Esteban 21An dagoen lokalaren erabilera zesioa**.-

Kultura departamentutik proposatu dute Tolosako Erraldoi eta Buruhandien konpartsari San Esteban Auzoko 21A udalak duen lokala erabilera zesioan uztea.

Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsak kultura eta gixarte lan oso esanguratsua egiten du Tolosarentza eta orokorrena euskal giartearentzat. Elkarte honek, orain, jauzi kualitatibo bat eman nai du bere jardunean eta, horretarako, museo-proiektu bat sortu nahi du, horren bidez tolosarrei eta euskal gizarteari erraldioen eta buruhandien historia transmititzeko eta ezaguterazteko eta hauxe da zesio honen helburua.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **E R A B A K I D U**

**LEHENA**.- Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsari San Esteban 21An Udalak duen lokala prekariozko izaeran uztea.

Epea: Prekario izaeran izango da zesioa, gehienez ere urte bateko iraunpena, hiru urte gehiago luzatzeko aukerarekin, Alkate Dekretuaren bidez.

**BIGARRENA**.- Zesioa doainekoa izatea finkatzea.

**HIRUGARRENA**.- Zesiodunaren kargura izango dira Elektrizitate kontsumo ur, gas eta gainerako gastuak.

**LAUGARRENA**.- Alkateari ahalmenak ematea ontratua sinatzeko.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**Beh. Beh. IDAZKARIA**